



Euskararen berri OLAtu gainean

2014ko urriko ALBISTEAK

Donostiako kale-izendegia ofizialki euskaratzeko akordioa

Donostiako udal taldeek akordioa lortu dute. 295 plaza eta kaleri euskarazko izen ofiziala jarriko diote. Hiriko kale horien euskarazko izenak eta gaztelerazko egokitzapenak onartu zituzten urriaren 30eko udalbatzarrean.

Irutxulo hitza: <http://irutxulo.hitza.info/2014/10/30/fuenterrabiari-agur/>

Errigoren saskiak 425 puntutan eska daitezke

Salgai daude jada Nafarroa hegoaldeko produktuen saskiak eta azaroaren 12ra arte eskatu ahal izango dira Euskal Herriko 425 eskaera puntutan. Bertako ekoizleen alde eginez, zonalde horretan euskararen biziraupena bermatu nahi du Errigora ekimenak.

Errigora: <http://www.errigora.eus/>

LEZOKO UDALA: Euskaraz kontsumitzeak, saria izango du Lezon

125 euroko balioa duen saskia eskuratu ahal du lezoar batek euskaraz kontsumitzeagatik. Lezotarra tabernan, Sagar Zulo jatetxean, Ximak ile apaindegian edo Zubitxo janari dendan euskaraz kontsumitzen duten bezeroek hartuko dute parte zozketan.

Oarsoaldeko hitza: <http://oarsobidasoa.hitza.info/2014/10/20/euskaraz-kontsumitzeak-saria-izango-du-lezon/>

Oiartzungo Euskara Elkartera egitasmoaren ondorioak aurkeztuko dituzte

Euskara Elkartera egitasmoak bidea hasi zuenetik izan duen bidearen, eta hortik atera diren ondorioen berri emateko batzarra egin dute hilaren 30ean (osteguna).

Oarsoaldeko hitza: <http://oarsobidasoa.hitza.info/2014/10/21/oiartzungo-euskara-elkartera-egitasmoaren-ondorioak-aurkeztuko-dituzte/>

Josu Waliño: “.eus’ domeinua euskararen eta euskal kulturaren domeinua da”

Euskal Herriko erakunde eta eragile gero eta gehiagok hartu dute .eus domeinua beren webguneetan. Irailean abiatu zuen ibilbidea domeinuak, eta Josu Waliño (Zumaia, 1972) zumaiarra izendatu dute domeinua kudeatzen duen Puntueus fundazioko zuzendaria.

Urola kostako hitza: <http://urolakosta.hitza.info/2014/10/29/josu-walino-eus-domeinua-euskararen-eta-euskal-kulturaren-domeinua-da/>

Etorkizuneko erronkei aurre egiteko bideak irudikatu ditu Enpresareanek Kursoalen

Urriaren 23an egin zen Donostiako Kursoal Jauregian Enpresarean jardunaldia. Guztira, 115 bat lagunek parte hartu zuten, 80 erakunde eta enpresa ordezkatzuz. Rober Gutiérrez, Bai Euskarari Elkarteko zuzendariaren hitzetan, "helburuak bete dira eta etorkizunean gure enpresek izango dituzten erronkei aurre egiteko bideak irudikatu ditu Enpresareanek".

Sustatu: http://sustatu.eus/baieuskararizurtagiria/1414154480?utm_source=rss&utm_medium=feeds

Hobelex, lexiko zuzenarekin idazteko tresna

Hobelex euskararako lehen lexiko-zuzentzailea da. Zuzentzaile ortografikoa eta lexikoa da, euskaraz akats ortografikorik gabe idazten eta, gainera, lexiko zuzen eta eguneratuarekin idazten laguntzen duen tresna.

Zuzeu: http://zuzeu.eus/2014/10/22/hobelex-lexiko-zuzenarekin-idazteko-tresna/?utm_source=feedburner&utm_medium=feed&utm_campaign=Feed%3A+zuzeu+%28zuzeu.com%29

Disonantzia egoerak: esatetik egitera dagoen tartea

Disonantzia egoerak izan genituen aztergai Moti+batuko gure lan taldean. Gure lehen eginbeharra gaia bera kokatzea izan zen. Zeintzuk dira disonantzia egoerak?

Lantalan: http://www.lantalan.com/emun/disonantzia-egoerak-esatetik-egitera-dagoen-tartea?utm_source=feedburner&utm_medium=feed&utm_campaign=Feed%3A+LanaEuskalduntzeko+%28lana+euskalduntzeko%29

Zuzeneko ekintzak: pentsamenduan eragin, portaera aldatzeko

Jarrerak aldatzeko estrategien inguruan jardun genuen Moti+batuko lantaldean. Motibazioa ekintzak abian jartzera mugiarazten gaituen indarra da, pertsona zerbait egitera bultzatzen duen barne prozesua. Beraz, portaerak aldatzea motibazioa landuz lortuko dugu. Baina zein strategiarekin eragin jarrerak aldatzeko? Nola lortu euskararen aldeko jarrera sendoa izatea?

Lantalan: http://www.lantalan.com/emun/zuzeneko-ekintzak-pentsamenduan-eragin-portaera-aldatzeko?utm_source=feedburner&utm_medium=feed&utm_campaign=Feed%3A+LanaEuskalduntzeko+%28lana+euskalduntzeko%29